

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Beti krema berriro noiz bota behar dugun edo erradiazioak eragin dezakeen gaixotasunei buruz kezkatzen gara. Guk ekartzen dizuegun produktua oso berritzaile eta sinplea da. Gainera, kezka horiei aurre egiten du.

Erradiazioaren eraginez, hainbat gaixotasun atera daitezke; azaleko gorritasunak, lehen eta bigarren mailako erredurak, azaleko minbizia, begiko ur-jauziak, larruazalaren zahartze goiztiarra eta inmunitate-sistemaren inhibizioa, adibidez. Nahiz eta Solar Chipa gaixotasun hauek ekiditeko balio duen, eguzkiari alergia duen pertsonentzako ere baliagarria da.

Neguan ere erradiazioa dago. Beraz, Chiparen erabilera udan bakarrik izango dela pentsatu dezakezue, baina neguan baita ere erradiazioa dago nahiz eta guk ez konturatu. Gure produktuaren erabilera oso handia izanez; baita ere edozein motako herrialdeetan erabili daiteke: Alaskan edo Argentinan, adibidez.

Beraz, esan dezakegu geure berrikuntza bezero multzo zabal batera iritsi daitekeela. Gure produktua unisex da eta erabiliko duen bezeroa edozein adinekoa izan daiteke. Hiru segmentu identifikatuko ditugu marketin plan espezifiko eta diferentziatu batekin; bereziki, komunikazioan eta banaketan. Txikientzako(0-10 urte) Solar Chip Kids sortuko dugu arrain formarekin eta kolore desberdinekin. Chip haun bereziki haur dendatan eskuragarri egongo da. Bestetik, Solar Chip Fit kirola egiten duen jendeentzako zuzenduta egongo da eta kirolaren munduarekin dauden influencer-ak egongo dira komunikazioa ustartzeko. Hau baita ere kirol dendetan egongo da. Eta Solar Chip, nerabe, gazte zein zaharrentzako erabili daiteke(10 urtetik gora), hau da, edozein familiarantzako. Azkeneko hau edozein dendatan saldu egingo da. Bezero hauek maila ekonomiko bakoitzakoa izan daiteke gure produktua oso prezio onean saltzen delako, 30€-tan.

